



ARGAZKI LEHIAKETA 2022

1. 14 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte, betiere argazkilaritzaren arloko profesionalak ez badira, eta gehienez ere 3 lan aurkez daitezke; lanek jatorrizkoak izan behar dute.

Lehiaketatik kanpo geldituko dira edozein modalitatetan argitaratutako argazki, kartel, margo eta abarren plagioa diren lanak, erabatekoa edo zati batean izanik ere.

2. **Formatua.** Argazkiaren gutxieneko tamaina 20x30 cm izanen da; obrak 40x50 cm-ko kartoi mehe zuri baten gainean muntatu behar dira.

3. **Gaia.** Burlata.

4. Edozein teknika erabil daiteke, bai zuri-beltzean bai koloretan.

5. **Aurkezpena. Epea:** ekainaren 10era arte, ostirala, Kultur Etxeko bulegoetan (Bentetako Ingurubidea 1), 8:00etatik 14:00etara. Era berean, helbide horretara bidal daitezke fakturatuak edo posta bidez. Kulturaren eta Jaien Patronatuak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko posta bidez bidalitako lanetan gerta litezkeen kalte edo galerengatik, ez eta lehiaketa bukatuta lanak itzultzeaz ere.

Egile-sinadurarik gabe aurkeztuko dira argazkiak, libreki aukeratutako izenburu batekin. Izenburu hori kartelaren atzealdan idatziko da, eta gutun-azal itxi batean, egilearen datuak agertuko dira: izen –abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa eta NANaren fotokopia.

Lehiaketatik kanpo geldituko dira klausula horiek betetzen ez dituzten proposamennak.

6. **Sariak.**

Lehenengo saria: 600 €.

Bigarren saria: 200 €.

Saria heldu den abuztuaren 14an emanen da, 11:00etan, Burlatako osoko bilkuren aretoan.

Saria egun horretan jako du irabazleak, edo, bestela, haren ordezkari gisa joaten den pertsonak –kasu horretan, aurretik abisatu beharko da-. Bestela, eman gabe geldituko da.

7. **Epaimahaia** epaimahai kalifikatzaileena, Kulturaren eta Jaien Patronatuko lehendakari aedo hark izendatutako persona ariko da buru, eta argazkilaritzan adituak diren veste bi pertsonak ere bai. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe gelditu daitezkie.
8. Saritutako lanak Kulturaren eta Jaien Udal Patronatuaren jabetza izatera pasatuko dira, eta hark bere gain hartzen ditu haien gaineko eskubide guztiak, eta, horrenbestez, obrak erreproduzitzeko baimena du.
9. Kulturaren eta Festen Patronatuak aurkeztutako lanekin erakusketa bat egiteko egiteko eskubidea gordetzen du eta hauek urritik aurrera jaso ahalko dira.
10. Erakusketa bukatuta, lehiaketan parte hartzen duten pertsonen urtea bukatu arteko epea izanen dute argazkiak jasotzeko; salbuespena dira saritutako lanak, Kultura eta Jaien Patronatuaren jabetzakoak izatera pasako baitira, eta, hortaz, ulertuko da egileek uko



Kultur eta Jaietarako Udal Patronatua
Patronato Municipal de Cultura y Fiestas

Burlatako Udala
Ayuntamiento de Burlada

Ronda de las Ventas 1/**Bentetako Ingurubidea 1**
31600 Burlada (Navarra) / **Burlata (Nafarroa)**
Tfno: 948 13 64 20
www.burlada.es / www.burlata.eus
CIF / IFZ G/31169386

egiten diétela haiei eta galtzen dituztela erreklamazioa egin edo kalte-ordainduko eskatzeko eskubide guztiak. Lehiaketan parte hartzen dutenek ordainduko ditzte argazkien bidalketa-gastuak edo itzulketa-gastuak.

- 11.** Halaber, argazkiak Burlatako Udalaren webgunean erakusten ahalko dira denbora mugagabea eta irabazi-asmorik gabe, betiere egilearen izena adierazita.
- 12.** Lehiaketako parte-hartzaileek oso-osorik onartzen dituzte oinarriok, baita Epaimahaiaren erabaki apelaezina ere.